


CBL
CAMPUS BIZIA LAB.



**13 KLIMAREN
ALDEKO EKINTZA**



13. GIH-A ETA LITERATURA: DBH ETA
BATXILERGOAN LAU KOMIKIKO IBILBIDE
LITERARIOA JORRATZEKO PROPOSAMENA

Egilea: Angela Cacho Rodríguez
Zuzendaria: Miren Ibarluzea Santisteban

*Derrigorrezko bigarren hezkuntzako,
batxilergoko, lanbide heziketako eta
hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen
prestakuntza unibertsitate masterra*

Hizkuntza eta Literatura espezialitatea
2023-2024 ikasturtea

AURKIBIDEA

- i. Helburua
- ii. Metodologia
- iii. Eztabaida eta ondorioak

HELBURUA

Lan honetan aurkezten den proposamen didaktikoa lau komiki Solasaldi Literario Dialogikoen bidez lantzeko gidak ematean datza, hezkuntza-berrikuntza proiektuaren barne kokatzen da proposamena. Aukeratutako komikiak irizpide jakin batzuei erreparatuz hautatu dira, besteak beste, bibliodibertsitatearen funtsak betetzea eta fikzio klimatikoarekin nolabaiteko harremana izatea. Horrela, 2030 Agendaren baitan dauden Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta, zehazki, 13. helburua —“Klimaren aldeko ekintza”— lantzeko ibilbide literario bat sortu nahi izan dugu. Sortutako gidak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan Euskal Autonomia Erkidegoko D ereduko ikastetxe anitzetako irakasleek material gisa erabiltzeko pentsatuta daude, Gaztelania eta Literatura eta Euskara eta Literatura irakasgaietarako. Literatura-obren zerrenda hau da: *Inoiz ez* (2017), *Artxipelagoa* (2023), *A las afueras* (2020) eta *Algas Verdes* (2022). Helburua ez da komikien zerrenda hutsa soilik egitea, baizik eta **hautatutako irakurketen atzean intentzionalitate argia egongo da irakaskuntza esanguratsua izateko eta guk planteatutako helburuak eraginkortasunez betetzeko.**

METODOLOGIA


- Giden **atalak**: deskripaben narratologikoa, deskripaben estetikoa eta solasaldi literarioak bideratzeko gakoak (solasaldiak bideratzeko edota parte-hartzea sustatzeko galdera posible batzuk eta 13. GIHa lantzea).
- Komiki bakoitza **solasaldi dialogikoen irizpideei jarraituta landu eta ebaluatuko da**, irizpideak orokorrak izango dira lan guztietarako.
- Proposamena **didaktika komunikatiboa** deritzon korrontean kokatzen da: ikasketen eta esperientzia sozialen arteko lotura egiteko bideratuta egongo dira solasaldiak.
- Irakurketa Planaren **hiru ardatzetan** eragingo dugu: **irakurtzeko ohitura** hartzea ikasleek, **ikasteko irakurtzea** eta **irakurzaletasuna** bultzatzea.
- **Askotariko irakurgaiak** izango dira: batetik, komikiak txertatuz, eta, bestetik, hautaketa bibliodibertsoa eginez.

METODOLOGIA

- **Edukiek** GIHeekin zerikusia izango dute eta bereziki **13. GIHarekin**, eredu jasangarri baten alde egingo dugu literaturaren bidez: **irakurketa ekokritikoa**.
- UNESCOk proposatutako **Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza Helburuak** (kognitiboak, sozioemozionalak eta jokabideen eremukoak) jarraitu izan ditugu.
- DBH eta batxilergoko EAEko curriculumak, **2023ko maiatzaren 30eko hezkuntza dekretua**.
- Retolaza eta Serranok (2014) proposatutako irakurketaren hiru aldaerak: **mundu ikuskerak, testuartekotasuna eta mundu sinbolikoak**.
- **Bibliodibertsitate** printzipioak: askotariko hizkuntzak, eskola-hizkuntzak, argitaletxe aniztasuna, euskarri digitalak zein paperezkoak, genero aniztasuna.

EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

- **Hezkuntza GIHak lortu ahal izateko ezinbesteko estrategia** da, kalitatezko hezkuntza xede bat izateaz gain, gainerako GIHak lortzeko bitartekoa ere bada.
- Irakurgaietara **ikuspuntu ekokritiko** batetik hurbiltzea da garrantzitsuena, ez eduki ekologistak aukeratzea.
- **Irakurketa-esperientzia kolektibizatzean** eraldaketa sozial eta pertsonalerako tresna bihurtzen da.
- Gida ez da testuinguru jakin baterako sortu, erabiliko den **taldearen egoerara moldatzeko aldaketak eta egokitzapenak egiteko aukera dago.**
- **Komikia aparteko aliatua** izan daiteke irakurle kritikoen prestakuntzan 2030 Agendaren erronkekiko konpromisoa hartzen duenean.
- Unibertsaltasun printzipioa ez betetzeak, eragina izan dezake solasaldiekin lortu daitezkeen emaitza positiboetan eta onuretan.
- Irakaslearen esku-hartzea ikaslearen eta obraren artean ezinbestekoa da, **testuekiko harremana, ezin da librea izan.**
- Proposamen didaktikoa ez bideratzeak emaitza errealak ateratzea oztopatu egin du eta, ondorioz, ezin izan dugu atal teorikoan azaldutakoa egiaztatu edota frogatu.



ESKERRIK ASKO ZUEN ARRETAGATIK

